



“Martxoaren 8”ko kartel lehiaketa 2007ko edizioa

1. ORRIA

Aukera Berdintasunerako Sailak eta Ermuko Emakumearen Udal Kontseiluak eten gabe gizon eta emakumeen artean benetako berdintasunaren alde dihardute eta, urtero “Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna” ospatzen dute: emakumeek dituzten eskubideak aintzat hartu eta aldarrikatzeko.

Lehiaketa honek diseinu grafiko bat aukeratzea du helburu, zeinak feminismoaren borroka eta emakumeen partaidetza soziopolitikoaren ikuspegitik berdintasunaren ideia adierazi beharko duen.

Hori horrela, hona hemen lehiaketaren

OINARRI-ARAUAK

1. PARTE HARTZAILEAK

Adinez nagusiak parte hartu ahal izango dute, banaka nahiz taldeka.

Parte hartzaile bakoitzak jatorrizko, beste inongo lehiaketara aurkeztu eta argitaratu gabeko hiru lan aurkeztu ahal izango ditu, gehienez ere. Lan bat baino gehiago aurkeztu duenak, lanok zenbakitu edo titulatu egin beharko ditu.

2. GAIA

Martxoaren 8ko aspekturen bat landu beharko dute derrigorrez, egileak nahi duen ikuspuntutik.

3. LANEN EZAUGARRIAK

Kolorea eta teknika, aukerakoak dira. Edozein teknika onartzen da kartela egiteko. Baldintza bakarra ondokoa da: inprimategian erreproduzitzeko balio izatea.

Lanaren neurriak ondokoak izango dira: gutxienezkoa 45x30 cm., eta gehienezkoa 65x40 cm. Lanak luma-kartoi gainean eta kristalik gabe aurkeztuko dira.

Halaber, derrigorrezkoa izango da lanak ondorengo esaldia jasotzea: “8 de Marzo-Día Internacional de las Mujeres 2007ko Martxoak 8-Emakumeen Nazioarteko Eguna”. Adierazitakoa baino testu gehiago agertzen denean, euskaraz eta gaztelaniaz egon behar da.

Horrez gain, CD bat aurkeztu beharko da, lanaren argazki batekin.

Lehiaketan ez dira onartuko bakarrik euskarri informatikoan aurkeztu diren lanak, lanaren kopia bat paperean eskatzen baita.

4. LANAK AURKEZTEKO ETA BIDALTZEKO MODUA

Lanak inolako kalterik jaso ez ditzaten behar bezala estali eta babestuta aurkeztuko dira. Azalean ondoko leloa idatzita eduki beharko dute: “MARTXOAREN 8ko KARTEL LEHIAKETA. 2007”.

Atzealdean lema dutela aurkeztuko dira lanak, egilearen izenik aipatu gabe. Egilearen datuak (izen-abizenak, adina, helbidea, telefonoa, eta egilearen curriculum laburra) eta N.A.N.aren fotokopia bat lanarekin batera bidaliko den gutunazal itxian joango dira, eta gutunazal horren aurrealdean lanak daraman lema adieraziko da. Gutunazal horretan bertan lehiatzaileak bere lanaren azalpen tekniko eta/edo historiko laburra erantsi ahal izango du, hala nahi izanez gero.

5. LANAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Lanak Ermuko Udalean aurkeztu beharko dira, hots: Informazio eta Erregistro bulegoan, goizez (lanegunetan). Halaber, lanak postaz bidaltzerik ere badago: Ermuko Udala, Baldespinako Markesa 1, 48260 ERMUA (Bizkaia).

Lanak aurkezteko azken eguna 2007ko otsailaren 13a da, hain zuzen ere arratsaldeko 3etara bitartean. Posta bidez bidalitakoak ere egun horretara arte onartuko dira, eguneko zigilu-markari erreparatuko zaiolarik.

6. EPAIMAHAIA

Epaimahaikideak artearen munduko profesionalak eta Emakumearen udal kontseiluko ordezkariak izango dira. Mahaiburua Aukera Berdintasunerako Saileko zinegotzia izango da.

Epaimahaiak otsailaren 14an sei lan aukeratuko ditu gehienez ere. Aukeratutako lan horiek Emakumearen Topalekuan ikusgai jarriko dira otsailaren 16tik 22ra bitartean, bertaratzen diren edo web-gunean sartzten diren herritarrek irabazlea aukeratu dezaten herri-bozka bidez. Lehiaketa honetan parte hartzeak onartzea dakar Udalak eskubidea izango duela herri-bozketarako egokitzat jotzen dituen lekuetan lanak ikusgai jartzeko

Epaimahaiak lehiaketa irabazlerik gabe lagatzeko eskumena dauka. Kasu horretan, ez da herri-bozketarik izango.

7. EPAIA

Epaia apelaezina izango da eta otsailaren 23an emango da ezagutzera. Irabazleari jakinarazpen bidez ezagutaraziko zaio epaiaren berri.

Kartelak hobeto inprimatzeko aldaketa teknikoren bat edo beste beharko balu, egilea epaimahaiarekin lankidetzan aritu beharko da egin beharreko egokitzapenak egite aldera.

8. SARIA

Sari bakarra emango da: 600 euro eta diploma bat. Lan irabazlea Emakumeen Nazioarteko Eguneko egitarau eta karteletan argitaratu eta erabiliko da.

Lanen batek aipamen berezirik merezi badu, epaimahaiak hari 300 euroko akzesita eman ahal izango dio.

Sariren bat irabazten duenak Ermuko Udalari lagako dizkio obra ustiatzeko eskubideak; eskubide horiek Ermuko Udalarenak baino ez dira izango eta Jabetza Intelektualari buruzko Legeari adierazitako eran egingo da lagapena, batez ere kopiaatzeko, zabaltzeko eta jendaurrean agertzeko eskubideak. Irabazleak dagokion dokumentua eman beharko dio Udalari, honek horrela egiteko eskatuz gero.

9. ERAKUSKETA

Emakumeen Topalekuan, martxoan erakusketa bat egingo da.

10. SARIRIK JASO EZ DUTEN LANAK

Egileek saritu gabeko lanak jaso ahal izango dituzte hilabeteren buruan martxoaren 31tik aurrera. Epe horretan lanak jaso ezik, egileek jabetzari eta lana berreskuratzeari uko egiten diotela suposatuko da eta, gerora, ez da inolako erreklamaziorik onartuko.

Lehiaketan parte hartzeak oinarrian eta epaimahaiaren azken erabakia onartzea dakar. Oinarri-arauak interpretatzerakoan zalantzarik sortuz gero, Ermuko Udaleko Aukera Berdintasunerako Sailak erabakiko ditu.

INFORMAZIOA: EMAKUMEEN TOPALEKUA, Izelaieta kalea, 12. Tfnoa. 943171030

WEB-GUNEA: www.ermua.es